



Urtarrilaren 27an ZINTZO MINTZOren IV. Batzar Nagusia ospatu zen Urretxuko Kultur Etxean, lantalde desberdinetako lagunek memoria eta egitasmoak azaldu eta aurrekontuen berri eman zuten

❑ Zumarraga SORTU II programaren partaidea da urtarrilaren 17a geroztik. SORTU II Urola Bailarako siderurgiak jasandako krisia konpontzeko asmoz sortutako egitasmoa da. Programa honetako partaide diren herrietako enpresariak eta enpresa berriak martxan jarri nahi dutenek, laguntza ekonomikoak behar izanez gero, diru kredituak modu onean lortzeko aukera dute. Udalak 12 milioi pezeta ordaindu beharko ditu proiektuan sartu eta laguntzak jaso ahal izateko.

❑ Bada herritik kanpo saririk jaso eta ezaguna egin den herritarrik ere. Izan ere, Urretxuko Etxabe gazta egileek bi sari lortu zituzten iaz. Tolosako gabon ferian gazta lehiaketako irabazleak izan ziren behi gaztan eta Gernikako feria nagusian ardi gaztako lehen saria eskuratu zuten. Berandu bada ere, gure zorionik beroena!

❑ Urtarrilaren 23an hasi ziren 41 urtetan berri ez den Urretxuko kaleetako zolua konpontze lanak. Azkoitiko sarreratik hasi eta Ipeñarrieta kalea bitarteko ibilbidea, Urretxuko aldapa eta Jose Mari Iparragirre instituturainoko bidearen zolua konpontzeko asmoa badago ere, momentuz Labeaga kalean hasi dira lan hauek.



QUEMALTEAREN
Zintzo
Mintzo
ELKARTEA




ILLARGI, E.A. okindegia

© 72 02 11 - Fax: 72 04 11

Azkoitirako bidea, z/g 20700 URRETXU

ZAPATAK



Otik 40 zenbakiraino

Eliz Kale, 7 © 72 54 39 20700 ZUMARRAGA

ASPACE: 25 URTE GURE ARTEAN

Aspace erakundea duela 25 urte jaio zen Gipuzkoan, guraso talde batek bere seme-alaben beharrentzat tratamendu egokia aurkitzeko nahiaren ondorioz. Honela probintzia osoan zehar hedatuz joan zen, eta Urretxura iritsi orain dela 17 urte.

Gaur egun Aspace Elkarteak zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditu: Haur eta gazteen zerbitzua, helduen zerbitzua, egoitza zerbitzua. Gainera Aisialdi talde eta kirol arloan lan egiten du. Ikerkuntza munduan, berriz, elkarteak tratatzen dituen arazoetan sakontzen du (burmuin paralisia, ...).

Urretxuko Aspace egoitzan pertsonak adinez helduak diren heinean, heldutasunez bizi daitezen saiatzen dira, baina etengabe ikasiz. Urretxun 22 pertsona biltzen dira astelehenetik ostiralera, goizeko bederatzietatik arratsaldeko bostetara, horietako 4 profesionalak direlarik.

Urretxuko Aspace egoitzan pertsonak adinez helduak diren heinean, heldutasunez bizi daitezen saiatzen dira

Eguneroko zereginetan, pertsona batek bere bizitza normalean aurre egin beharreko arazoak planteatzen dira eta horiek konpontzeko bideak jarri. Esparru pertsonala, soziala,



kirol eta lan arloak... guztiak lantzen dira ildo horretatik. Honekin batera etxeko lanak, erosketak, irteerak... egiten dituzte. Hala nola, kutxatik dirua nola atera edo sartzen den ikasten dute. Honi jarraituz azpimarratu nahi lukete eskertzekoa dela herriotako biztanleek duten arreta eta eskaintzen duten laguntza. "Askotan itxaroten izaten ditugu, galderak egiten ditugu... baina herritarrek erraztu egiten dute gure barneratzea daukaten jarrera positiboarekin".

Lan egiten dute Aspacen, gogor gainera. Ezkontzetarako detaile-txoak, saskiak... egiten dituzte, eta ez hori bakarrik, gero produkzioaren inguruko erabakiak elkarrekin hartzen dituzte. Baina elkarte hau ez dago isolaturik. Hasteko, Udalekin harremana dauka, honekin batez ere oztopo arkitektonikoei irteera aurkitzen saiatzen da, honi buruzko

lanak aurkeztu dituztelarik. Enpresa ezberdinak ere bisitatu ditu, lan irteerei buruzko orientabidea eskaintzeko. Bestalde hezitzaile bereziek praktikak egiten dituzte bertan.

Honekin batera, gaur egun Aspacek duen arazo larrienetarikoa bat zentro egoki baten falta da. Daukatena ez dago egoera guztiz onean egiten duten lan mota kontutan harturik. Beste arazoetako bat oztopo arkitektonikoak dira, nahiz eta, euren hitzetan "gero eta gogo handiagoa ikusten dugun hau konpontzeko".

Amaitzeko euren nahia azaltzen dute: "Oztoporik gabeko herriaz gain, orain arteko gureganako azaldu duzuen errespetuak, hala jarrai dezala, guk geure mugak izan arren, gizarteak gu pertsona helduak garela ikus dezala".

JAKA

KRISTALDEGIA

Ipeñarrieta, 18
20700 URRETXU

© 72 14 13

3.000 m2 ALTZARIZ JANTZITA

ALTZARIAK
GUEA

Iparragirre, 42 © 72 01 56 URRETXU

ZURE ETXEA APAINTZEKO

BIDE LAPURRAK, PETIT DE MEURVILLE ETA IPARRAGIRRE

Urretxu eta Zumarraga, joan den mendean zer ote ziren jakiteko, hona hiru zubi, berri berriak ez izanda ere, aipagarri ditugunak. Batetik, nabarmentzekoa dugu Koldo Argandoña Urretxuko udal artxibariaren lana. "Gipuzkoa duela 200 urte" liburuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1993an argitaratutakoan, "Urretxu duela 200 urte: bidelapurren kontakizunak" lan atsegina irakur dezakegu. Argandoñak, 1791tik 1833 bitartean Urretxu inguruko bidelapurrek egiten zutena kontatzen digu. Hona hemen berak bidelapurrei buruz dioena: "normalean, fusil nahiz eskopetaz armaturiko hiruzpalau gizon agertzen ziren arren, kasu batzuetan Euskal Herriko makilaz baliatzen ziren gaizkileak ere suertatu izan ziren. Su armak zeramatzaten kideen atzetik geratzen ziren makildunak, normalean bigarren mailan. Edonola ere, aurpegia zikinduta zeramaten, ezagutu ez zitzen, eta hemengo janzkera erabili ohi zuten".

Lapurrak nongoak ziren jakitea ez da erraza. Pasaporterik gabe

atxilotutako susmagarriak hartuz gero, ia den-denak Gipuzkoatik kanpokoak omen ziren. Lekukoen aitortzak kontuan izan ez, aldiz, zenbaitetan euskaldunak omen ziren lapurrak. Lapurrek bazekiten, jakin, zeini ezarri hatzaparra gainean; dirua edo bitxiak izan zitzaketenei hain zuzen. "Militarrak ziren gehienbat, hala nola, teniente koronel baten alarguna, edo lehen sarjentua, esate baterako".

Postakotxeak (*mala* deituak) ziren gehien sofritzen zutenetakoa. Deskarga inguruan bereziki, kotxentzako Errege Bidea bertan zegoenez, leku ezin hobea baitzen, menditsua, harrapakina urrutitik ikusteko moduko lekua eta gainera ihes bide ugari eskaintzen zuena, Elosu, Aizkorri edota Oria aldera. Zamariak ere jasan behar izan zituzten gaizkile hauen espantuak, asko eta asko nafarrak, ardoa salduta atzera beren herrietara zihoazenak.

Hogeita hamar orrialdetan zehar, garai hartako hainbat pasadizo kontatzen dizkigu Koldo Argandoñak, irakurterrazak eta


atseginak, euskaraz eta gazteleraz.

Didier Petit de Meurville.

XIX. mendera inguratzeako bigarren zubiak François Petit de Meurville (1793- 1873) frantziar pintore eta diplomatikoaren izena darama. Urretxu eta Zumarragari buruzko bi margolan (gouacheak) egin zituen 1857-1873 bitartean, Gipuzkoan zehar ibili zen garaian. "Villarreal de Zumárraga" (Urretxu-Zumarragatik ikusita) eta "Estación de Ferrocarril. Zumárraga" izenekoak dira Javier Satrustegiren bilduman gure herriei buruz azaltzen diren bi lanak.

Jose Mari Iparragirre.

Hirugarren zubiaren izenak badu entzuterik gure artean. Joan berri zaigun urtean 175 urte bete dira Jose Mari Iparragirre (1820-1881) jaio zela. Hori gogoan harturik ez letorke gaizki abeslari urretxuarraren ibili eta lanei arretaz erreparatzea. Angel Cruz Jakaren "Iparragirre" lana egoki izan daiteke xede horretarako. Azkenik, zori onak bihotzez Gontzal Mendibil eta zeanuritarrei "Iparragirre Hegalaria" saio bikainagatik.



Ura guztion eskura!

S. Esnaola 34, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 23



MAPFRE

Aseguru etxea


S. Esnaola, 6 • © 72 20 00 - Fax: 72 24 00
20700 - ZUMARRAGA



**Bulegoko eta merkataritzako
makinen salmenta eta
konponketa**

Labeaga, 12 © 72 36 08 20700 URRETXU

San Balendin eguna ospatzen al duzue?



Luis Gezalazaga

Nola ez ba? Urtero-urtero gainera. Nahiz gaztea zein zaharra izan, jendeari esango nioke ospatu beharra dagoela, urteko egun politena baita. Nik loragintzan lan egiten dudanez, normalean afari bat edo bestelako erregaliren bat egiten diot emazteari.



Juanbi Artolazabal eta Kontxi Azkarate

Bikote moduan hasi ginenetik ospatzen dugu. Opari bereziegia ez diogu elkarri egiten, ikututxoren bat, San balendin eguna dela gogorazteko.




Bixente Egiguren eta Amaia Aranburu

Iaz ez genuen ospatu. Egia esateko tontokeria hutsa iruditzen zaigu. Aurten ez dakigu ospatuko dugun ala ez.



Pello Rodriguez

Nik ez dut ospatzen neskarik ez dudalako. Neska izango banu ospatuko nuke. Oso ongi ikusten dut bikoteen artean egun hau ospatzea.



Zumarragako Eitza auzokoa da, oso gazterik, 15 urterekin hasi zen lanean Unanue jatetxean eta Donostian magisteritza ikasketak egiten zebilela ere, asteburuero etortzen zen bertara. Irakasle ikasketak bukatzeko urte bete falta zitzaiola, sukaldaritza eskolan eman zuen izena eta ez du sekula damutzeko arrazoirik izan, goren mailako sukaldaritzan egotea lortu baitu.

Baina ospe handiko sukaldaria izan arren, ez ditu ostalaritza munduan emandako lehen urratsak ahaztu eta atsegin handiz kontatzen ditu Unanue jatetxean Jose Mari eta Purirekin ikasitakoak. Han barneratu baitzuen, gero hain baliagarria izan zaiona, hau da, jakiak gustu eta mimo handiz prestatzeko trebetasun.

Esperientzia handiko sukaldaria da, Igeldo, Getaria, Bartzelona Donostiako Nikolasan 3 urtetan, Bilbon edota Ibizako jatetxeetan ihardun baitu lanean. Egun, Arzakeko sukalde burua da, bost urte daramatza lan horretan eta 7 sukaldari eta 15 ikasle ditu bere kargu. Hauen guztien lana kontrolatzeaz gain, sukaldaritza lanez arduratzen da.

Euskal sukaldaritza estatu mailako onena eta mundu mailan, Txina eta Frantziakoarekin batera, hiru onenen artean dagoela uste du, eta Euskal Herriko etxekoandre eta zaletuen maila ona goraiatu du.

Askoren iritziaren kontra, diru gutxiarekin ondo jan daitekeela aitortu du, sekretua, derrigorrez garestiak izan behar ez duten osagai onak erabili eta prestatze-rako garaian jarritako dedikazioan omen dago.

PELLO ARANBURU

EDURNE

Punta puntako moda
Aukerarik hoberena
gizonezko eta gazteentzat

Piedad, 18 © 72 14 17 ZUMARRAGA

ELIZ - KALE

L AUTOESKOLA

Bidezar, 11
20700 ZUMARRAGA © 72 04 52

BIONA

AROTEGIA

© eta Faxe: 72 02 55
Erratzu, z/g 20700 URRETXU

Zumarragan ere Ramadan garaian



Argazkia: G. Aranburu

Mundu osoan eta baita gure artean ere dauden Mahomaren jarraitzaile guztientzat, 935 milioi inguru, urtarrilaren 22tik otsailaren 21era bitartekoa Ramadanaren hilabetea, hots, barau garaia, da. Gezurra iruditu arren gure bi herriotan bada jendea Ramadanak agindutakoa betetzen diharduena. Ramadanak irauten duen bitartean, eguzkia irteten denetik ezkutatu artean ezin dute ezer jan, ezin dute ur tantan bat ere edan, tabakoa eta lurrinen erabilpena ere galarazita dute, baita harreman sexualak ere. Ramadana, musulmanen urtearen bederatzigarren hilabetea, urtero 12 egun aurreratzen denez ez da beti urte sasoi berean izaten. Hala aurtengo Ramadana ez dela gogorrenetarikoa diote, neguan izanik bero handirik ez egiteaz gain, egunak oraindik motzak direlako. Ramadanaz aparte, musulmanen bete beharrekoak dira egunean bost aldiz eta ostiraletan mezkitan otoitz egitea, baina hori bai, beti Mekarantz begira. Bizitzan gutxienez behin Mekara

joatea ere behar beharrezkoa omen da.

Mezkitak aipatzean, Gipuzkoan bi mezkita daudela esan behar da, bata Eibarren eta bestea Zumarragan. Irekitzekotan dagoen Zumarragako mezkita honetara, Urdaneta kaleko oihal biltegi ohi batean aurki dezakegun honetara, hemen bertatik edo inguruko hainbat herritatik, Lazkao, Ordizia eta Azpeitia, etortzen dira. Gaur egunean, 11 gizon, gizonak bakarrik, elkartzen dira ostiralero. Emakumeak beren etxeetan otoitz egin beharrean daude, mezkita hau txikiegia baita bi areto, gizonen aretoa eta emakumeen aretoa, egiteko eta ondo otoitz egiteko bi sexuak bereizita izatea beharrezkotzat jotzen baitute.

Beraz, bertako eta inguruko musulmanek arazo administratibo batzuk konpondu bezain laster, Zumarragan, Alaren izenean biltzeko aukera izango dute.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián



Zure teilatuan, itokinik ba al dago? Bai? Orduan badakizu zer egin ... Teilatua kendu eta kitto!!! Zumarragako parrokiak sistema moderno eta iraultzaile hau jarraitu du eta emaitzak ezin hobeak izan omen dira. Hori bai, aurretik Pello Zabalorekin hitz egitea eta klarisei arraultzeak eramatea komenigarria da.

NONDIK DATOR!

SALABERRIA

Zumarraga eta Urretxun oso ezaguna den abizena dugu. Bi osagaiez osatua da, sala eta berria. Lehendabiziko osagaia oso arrunta ba da ere, oro har ez da oso esanahi ezagunekoa. Sala edo Salha-k etxe, jauregi edo bordaren esanahia du eta bai gazteleraz edo galegoz radikal honez sortutako abizenak badira: Salanueva, Salamanca. Osagai honekin, euskaraz ere Salazar abizena dugu.

AEK eta HABE-ren arteko akordioaz

AEK eta Eusko Jaurlaritzaren arteko akordio markoa dela eta zenbait erreflexio egin nahi genuke honen inguruan:

Akordio hau gauzatuko bada EAEn izango da. Honek ez du AEK osoaren arazoa inola ere konponduko Nafarroan eta Iparraldean bizi dugun egoera larria baino larriagoa delako: Nafarroan diru murrizketa bortitzak eman dira eta Iparraldean ez dago inolako laguntzarik bertako administrazioaren aldetik. Beraz jaso genezakeen diru guztiaren zati handi bat horietan dauden zuloak estaltzera joango litzateke.

Dena den, oso positibotzat jotzen dugu urteetako liskarrak gainditu eta behingoz mahai batean esertzea eta AEK-k orain arte egin duen lana onestea.

Aipatu bezala akordioa markoa da. Honek zera adierazten du: zehaztaper guztiak ondoren etorriko direla eta orduantxe baloratu ahal izango dugula akordio hau positiboa den ala ez. Badira zenbait puntu garrantzitsu zehaztu gabe daudenak:

- Euskaltegien mapa. Honen bidez ikusiko dugu euskaltegi eta ikasle guztiak onartuak izango diren
- Gaur egungo irakaslegoa onartuko bada ere etorkizuneko onartu ahal izateko eta prestatua egoteko bideak zehaztu beharko dira
- Diru laguntzak urtero negoziatuko dira. Momentuz dirulaguntzak pixka bat igo dira, baina ez dira nahikoa AEKren egoera hobetzeko.

Argi utzi nahi genuke akordioa abiapuntu bezala oso positiboa ikusten dugula beraren atzean elkarrekin lan egiteko konpromezua dagoelako baina, era berean, garbi utzi nahi dugu ere orain hasten dela eta aurrerago jakin ahal izango dugula emankorra izango den ala ez.

BISASTI AEK EUSKALTEGIA



F/S

Argazki Estudioa

Argazki eta bideogintza

Ipeñarrieta, 20 & 72 23 19 URRETXU



Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11-etxeazpia
20700 URRETXU

© 72 25 99

ITURGINTZA



LUIS ANGEL

Gure erakusketan zain
gaituzu!

Deskargarako bidea, z/g. © eta Faxe: 72 54 59

URTE OSOAN GOGOR LAN EGITEN DUTE GIMNASIA ERRITMIKOKO IKASLEEK



Beatriz Saiz, gimnasia erritmikoko eskolako irakaslearekin izan gara, kirol honen berri izateko.

13 urte daramatza Urretxuko Aldiri polikiroldegian lan honetan eta bere esanetan, berak ere asko ikasi du, eta klaseak emateko moduan nabari omen da urtetako esperientzia. 100 ikasle dituen arren ederki ezagutzen du bakoitzaren ahalmena eta hau oso kontutan hartzen du koreografiak prestatzeko garaian. Irakaslea eta ikasleen arteko harremana oso ona dela ikusi izan genuen elkarrizketa egin genuenean

Neskatila ugari ikusi dugu, guztira zenbat ikasle daude eskolan?

Gimnasia erritmikoko eskolak 100 ikasle ditu, guztiak neskak dira nahiz eta mutilak ere onartzen ditugun. Eskaera handia duen kirola da, baina azken urtetan ikasle kopurua mugatu egin dugu, talde handiegiak ez direlako egokiegia behar bezala irakatsi eta ikasteko.

Zenbat talde daude eta zeren arabera egiten da banaketa?

Hiru talde daude eta batez ere adinaren arabera osatutakoak dira. Lehenengo taldean 8-9 urteko neskatilak eta hasi berriak biltzen dira. Helburua gimnasia erritmikoaren teknika jasotzea da, eta horretarako klaseak ahalik eta atseginenak izaten saiatzen naiz.

Bigarren taldea 9 eta 11 urte bitartekoek osatzen dute, lehenengoaren jarraipena da, aurretik jasotako teknika lantzen da hemen. Hauxe da hain zuzen ere, garairik garrantzitsuena eta behar bada ikasleentzat aspergarriena, ariketak behin eta berriro errepikatu behar direlako.

Hirugarren taldea nagusiek osatzen dute, koreografiako ariketak egiteaz gain, aurreko bi taldeetan erabiltzen ikasi dituzten aparailuak ere lantzen dira, soka, zinta, baloia, edota gabiko edo maza delakoa.

Txapelketak baino garrantzitsuagoa da eskola

Dagoeneko ezagunak dira herrian eskaintzen dituzuen emanaldiak.

Urtero bi egiten ditugu, bata urte bukaeran eta ikasturte amaieran bestea. Ikasleak animatzeko eta lanean jarraitzeko gogoia pizteko antolatzen dira batez ere. Bakoitzak gutxienez hiru koreografia ikasi eta ikusleen aurrean erakutsi behar ditu. Hau asko gustatzen zaie eta gogo handiz eta gogor aritzen dira saioak prestatzen. Lan handia egiten dute ikasturte osoan zehar erakusketarik ez dagoenean txapelketak prestatzen iharduten baitugu. Erakusketak antolatzea, txapelketetan parte

hartzen ez duten ikasleak animatzeko bidea ere bada.

Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan izan eta saririk ere eskuratu duzue.

Bai Gipuzkoako Txapelketan eta baita Euskadikoan ere, behin baino gehiagotan irabazi ditugu sariak, eta oso gustura gaude. Baina txapelketak oso garrantzitsuak diren arren eskola garrantzitsuagoa da, oinarria baita. Ikasleek hau ulertzen dute eta irabaztea oso gustuko badute ere, ez diote horrenbesteko garrantzirik ematen gauzak nahi bezala irteten ez direnean eta hau goraiatzekoa da. Txapelketetan lagun asko egiten dituzte oso ongi pasatzen dute eta beraientzat nahikoa izaten da.

Aurten aurkeztuko al zarete lehiaketaren batera?

Otsailaren 18an hasi eta ekainera arte luzatuko da Gipuzkoako txapelketa, bertara joateko asmoa dugu eta dagoeneko taldeak bertan eskaini beharreko lana ezagutzen du eta hori prestatzen dihardugu.



Iparagirre, 1 © 72 59 68 20700- URRETXU

KALITATEA • TEKNIKA • ZERBITZUA • MODA

TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU

HEGIALDE AUTO

• KONPONKETAK OROKORREAN

• IBILGAILU SALMENTA

• GARBIKETA ZUBIA

ZERBITZU OFIZIALA



PEUGEOT

Mugitegi, 17 © 72 51 37 - URRETXU

ERAKUSKETAK

Otsailaren 7tik 8ra bitartean, **Juan Luis Orbea** argazkilariaren erakusketa, Urretxuko Aldaketa erakusgelan.

ZORIONAK



Maite Arbonies, 6 urte bete ditu otsailaren 3an. Zorionak Txema, Marijo eta Mirenen partez.



Ainara Oiarzabal, 7an bete badituzu ere, eta berandu den arren, zorionik beroenak zure amen partez 18 urte bete dituzun honetan.



Nieves Badiola, 53 urte bete ditu otsailaren 8an. Zorionak eta bوليوetan urte asko pasa ditzazula.



Itsaso, otsailaren 10ekoa. Bazen ordua! Hainbeste "txapa" sartu ondoren azkenik iritsi da eguna! 15 urte bete dituzu! Zorionak zure koadrilakoen partez!



Pello, 38 urte beteko ditu otsailaren 23an. Izaskun eta Anderren partez Zorionak.



Mikel Lizarraga, 53 urte beteko ditu otsailaren 27an. Zorionak lankideen partez.

HAURRENTZAKO ZINEA

Igandeetan arratsaldeko 16:30etan eta Pagoeta antzokian **Zintzo-Mintzok** antolatutako haurrentzako filmeak. Sarrera, 100 pezeta.

Otsailak 11: ASTERIX ETA KLEOPATRA

Otsailak 18: MAFALDA ETA BERE LAGUNAK

Otsailak 25: ABEREEN ETXALDEA

IHAUTERIAK

Otsailak 15, Ostegun Gizen: Ogitartekoak eta laranjak banatuko dira eskoletan. **Zuhaitz eguna** ere ospatuko da eta zuhaitzak landatuko dira Santa Barbaran.

Otsailak 17: LURRA dantzataldeak, *Lapurdiko ihauteria* antzeztuko du Urretxuko kale eta baserrietan zehar.

Otsailak 20, asteartea: Areizaga-Kalebarren enparantzan **EGAN BERRIA** taldearekin dantzaldia izango da arratsaldeko 5:30etatik aurrera, Zumarraga eta Urretxuko udalek antolatuta.


MAIRI

Otsailak 6-7: Mairi emakume elkarteak antolatutako **Mikrouhinez margotutako zapien ikastaroa**, arratsaldeko 15:30etatik, 17:00etara, Urretxuko Kultur Etxean. Izen ematea, 500 pezeta.

Otsailak 14: Mairi elkarteak antolatutako hitzaldia Kultur Etxean, arratsaldeko 3:30etatik aurrera. Gaia, *Benetako familia baterako oinarriak* eta hizlaria Ignacio Ramirez apaiza izango da.

Otsailak 28: Goierriko emakume elkarteek **topaketa**, Urretxuko Kultur Etxean.

URRETXUKO



ALDAPA